

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2011ko ekainaren 16a. VIII. urtea. 2.245. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Tolosako San Joan Jaietan festak eta omenaldiek bat egingo dute

Hilaren 23an hasi eta 26an amaituko dira sanjoanak; aurten egun handia ostiralean izango da eta Koadrilen Eguna, aldiz, larunbatean

Doroteo Ziaurriz eta Antonio Maria Labaien, alkate ohiak eta Euskal Pizkundeko kideak, omenduko dituzte San Joan Egunean **03**



Ramon Labaien eta Ibai Iriarte alkatea, Tolosako koadrilen ordezkariak inguruan dituztela. A. IMAZ

## Igandean izango da II. Txindoki Bertikala proba

150 korrikalari inguru ariko dira parte hartzen, horien artean Iñaki Gorostidi abaltzisketarra eta Jone Urkizu azpeitiarra **05**

## Muruamendiarazen eskualdeko lau dantzariak

Aukeran konpainiaren 'Burnia' lan berria Naikari eta Ioritz Galarraga amasarrek, Ione Iriarte billabonatarrek eta Aritz Iglesias tolosarrak hartzen dute parte **06**

**tolosaldea.hitza.info**

herrietako informazioa inoiz baino gertuago ezagutu gure webgune berriak

ibarraldea.hitza.info • alegialdea.hitza.info • anoetaldea.hitza.info • villabona-aiztondo.hitza.info • leitzaldea.hitza.info • tolosa.hitza.info



# Ziaurriz eta Labaien omenduko dituzte aurtengo sanjoanetan

Koadrilen eguna hilaren 25ean izango da; alkate ohien omenaldia jaien egun handian izango da, hilaren 24ean

## Asier Imaz

Historia, erlijioa, kirol jarduerak, musika, dantzariak... gertutik ikusteko eta bizitzeko aukera

## ↓ Egitaraua

### HILAK 23, OSTEGUNA

- **10:30ean.** Euskal Herria plazako Iturriza Jubilatua eta Pensionisten Elkartearen Mus Txapelketa.
- **17:00etan.** Txistularien kalejira, antzinako erronda bidetik barrena.
- **18:00etan.** Saharako haurrei harrera egiteko ekitaldia.
- **18:30ean.** Suziria, udaletxeko balkoitik, eta kanpai hotsa, jaien hasiera iragartzeko.
- **18:30ean.** Erraldoi eta buruhandiak, Tolosako dultzaineroekin. Irteera, Plaza Zaharretik.
- **18:30ean.** Tolosako margolarien XLV. erakusketaren inaugurazioa, Txinparta Elkartearen. Erakusketaren 26ra bitarte egongo da zabalik.
- **19:30ean.** Zerkausian bertso jaialdia: Amaia Agirre, Bixente Gorostidi, Iker Zubeldia, Jexux Mari Irazu, Adur Gorostidi eta Beñat Iguaran. Gaijartzailea: Iker Iriarte.
- **19:30ean.** Udaltzatza Plaza Zaharretik abiatuko da Arramaleko San Joan kaperako bezperetan eta arrats otoitzetan parte hartzeko.
- **20:00etan.** Berdura plazan, Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestraren kontzertua.
- **22:00etan.** San Joan sua, Andre Maria plazan, Udaltzatza bertan dela. Ondoren, Udaberri Dantzari Taldeak eta Tolosako Musika Bandak jardungo dute.

egongo da aurtengo Tolosako sanjoanetan. Koadrila eguna ere azpimarratu behar da, parte hartze zabalagatik. Hau hilaren 25ean izango da. Une berezietako aldiz, hilaren 24ean biziko dute hainbat tolosarrek, Ziaurriz eta Labaienen omenaldian.

### Omenaldi berezia

Tolosako Udalak omenaldia eskainiko die Doroteo Ziaurriz eta Antonio Maria Labaien alkate

ohi eta kultur eragile izandakoei San Joan egunean, herriko festen egun handian. Aitzol Euskal Pizkundera urteurrenaren ekitaldien baitan, Tolosako herriak omenaldi berezia eskainiko die San Joan Festetako egitarauaren ekitaldi esanguratsuenan, eta hauetan parte hartuko dute Doroteo Ziaurriz zenaren iloba den Karmele Goñik eta Antonio Maria Labaien zenaren semea den Ramon Labaienek.

Doroteo Ziaurriz eta Antonio Maria Labaien, euskal pizkunderaren eragile nagusiak biak ala biak, Tolosako alkate izan ziren. Doroteo Ziaurriz, 1931an aukeratu, Tolosan Errepublikako lehen alkatea izan zen eta Estatuaren aldeko Lizarrako Biltzarrean parte hartu zuen. Antonio Maria Labaien 1936ko hauteskundeetan aukeratu zuten alkate. Bera izan zen Tolosako alkatea gerra piztu zenean.

San Joan zortzikoa jo ondoren, Musika Banda kalez-kale ibiltzera abiatuko da. Jarraian, Hodeiertz abesbatzak kantatuko du.

- **23:00etan.** Plaza Berrian, Yuktan eta Lobo Electrico musika taldeen emanaldia, ondoren, DJ Puntzaka.

### HILAK 24, OSTIRALA

- **07:00etan.** Alkate Soinua Tolosako Txistulari Bandaren eskutik.
- **08:30ean.** Diana, Tolosako Musika Bandarekin.
- **08:45ean.** Diana, Tolosako eta Iruñeko txistulari bandekin.
- **09:00etan.** Txirindulariak: 1. eta 2. mailako afizionatu proba, XXXVIII. Jose Mari Anza Memoriala, Oriako Txirindulari Eskolak antolatuta.
- **09:30ean.** Plaza Zaharrean eskopetariak eta Tolosako Musika Banda bilduko dira. Diana, desfilea eta, ondoren, San Joan Alardea, Gipuzkoako antzinako foru milizien oroimenez, Udaltzatza buru dela.
- **10:00etan.** Meza Nagusia Andre Maria parrokiaren. Santa Maria Kaperak parte hartuko du. Ondoren, prozesioa. Bertan parte hartuko dute Udaltzatza, kofradiek, Tolosako bordondantzariak eta erraldoiek; aldi berean, elkarrekin eskopetariak ordenantzetako salbak botako dituzte. Azken deskargak,

Euskal Herria plazan egingo dituzte.

- **12:00etan.** Oria ibaian batel estropadak, sailkapen probak.
- **13:00etan.** Kontzertua, Berdura Plazan, Tolosako Musika Bandarekin eta Tolosako eta Iruñeko txistulariekin.
- **16:45ean.** Udaltzatza, Tolosako Musika Banda, txistulari, bordondantzari eta eskopetariak Plaza Zaharretik abiatuko dira, Andre Maria eliza nagusiko bezperetara joateko. Ondoren, Arramaleko San Joan kaperan izango diren arrats otoitzetan parte hartuko dute.
- Ondoren, Trianguloan bilduko dira. Eskopetariak azken deskargak egingo dituzte. Udaltzatza Zumardiaundira joango da, eta Aurrekua dantzatuko da bertan. Euskal pizkunderaren eragile izandako Doroteo Ziaurriz eta Antonio Maria Labaien, Tolosako alkate ohiak, gogoratuak eta omenduak izango dira.
- **18:00etan.** Haur ikuskizuna Alondeggi plazan: Azkona taldea.
- **18:00etan.** San Frantzisko pasealekuan Txirindulari Kriteoriuma, Jose Manuel Ansorena XV. Memoriala. Oriako Txirindulari Eskolak antolatuta. Emakumezko, kadete, gazte eta afizionatu mailako txirindulariek hartuko dute parte.
- **19:30ean eta 23:30ean.** Jones Brothers txaranga kalez-kale ibiliko da.
- **23:00etan.** Su festak, 1. bilduma: Pirotecnia Zaragozana.
- **23:30ean.** Euskal Herria plazan, Korrontzi eta Oinkari Dantza Taldearen emanaldia: *Infernuko Hauspoa*. Euria eginez gero, Leidorren.

### HILAK 25, LARUNBATA

- **10:00etan.** Beotibar pilotalekuan, Tolosako Beotibar Zesta Punta Eskolak antolatuta, XX. San Joan Zesta-Punta Txapelketa.
- **10:30ean.** Haurren entzuerroa. Plaza Berritik zezen plazara.

- **11:00etan.** Erraldoi eta buruhandiak, Tolosako dultzaineroekin. Irteera Plaza Zaharretik, amaiera zezen plazan.
- **11:00etan eta 16:00etan.** Haur jaialdia.
- **11:00etan.** San Frantzisko pasealekuan, Harizpe elkarrekin antolatuta Toka Lehiaketa.
- **11:30ean.** Zezen plazan xexentxoak eta zalditxoak haurrentzat.
- **11:30ean.** Bonberenea txaranga eta GiroArte Dultzaina taldea kalez-kale ibiliko dira.
- **11:30ean.** Koadrilen Egunari hasiera emango zaio Plaza Berrian, txaranga eta dultzaineroekin, eta Tolosa Kantarikoekin.
- **14:00etan.** Euskal Herria plazan, koadrilen bazkaria. Ondoren, Zpeiz Mukaki taldea.
- **18:00etan.** Berdura plazan, Hipo eta Tomax haur ikuskizuna.
- **19:00etan.** Iraunkorrak txaranga eta Mulambo perkusio taldea kalez-kale.
- **23:00etan.** Su festak, 2. bilduma; Astondoa Piroteknia.
- **23:00etan.** Xirimiri Orkestraren kontzertua Lopez Mendizabal plazan.
- **23:30ean.** Vendetta eta DJ Black Plaza Berrian.

### HILAK 26, IGANDEA

- **09:00etan.** Diana, GiroArte dultzaina taldearekin.
- **11:00etan.** Plaza Berrian So-kamuturra.
- **11:00etan eta 16:00etan.** Haur jaialdia, Alondeggi plazan.
- **12:00etan.** Oria ibaian batel estropadak, finala.
- **18:00etan.** Lopez Mendizabal plazan haur ikuskizuna, Zirkua Zirkus.
- **18:00etan.** Zezen plazan, zezen-errekortarien VII. Lehiaketa.
- **19:00etan.** Trianguloan herri kirolak: Mugerza eta Mujika; Ize-ta II.a, Ize-ta IV.a eta Telleria, eta Izaskungo nesken sokatira taldea.
- **20:00etan.** Txistularien Alardea Berdura Plazan.

## → Laburrak

### VII. Pintura Lehiaketa, Felix Yarzaren oroimenez

**LEHIAKETA** › Tolosaldean jaio diren edo bertan bizi diren artista guztiak parte hartu ahal izango dute Felix Yarzaren oroimenezko lehiaketan. Obrek, gehienez bi obra lehiakideko, originalak izan beharko dute, teknika librez eta gehienezko 73x60 cm-ko formatuan eginak. Gaia norberak aukeratu-tako izango da. Epaimahaia aukeratu-tako obrak elkarrekin lokaletan jarriko dira ikusgai San Joan Jailetako egunetan, ekainak 23 eta 26 bitartean izango den erakusketan. Lanak Txinparta elkarrekin aurkezteko epea bihar, ostiralean, amaitzen da.

### Italiatik bi antzezlan etorriko dira

**KULTURA** › Topic inguruan bi ikuskizun egongo dira asteburu honetan. Itailako Girovago e Rondella konpainiak *Il circo poetico* eta *Manoviva* lanak eskainiko ditu ostiralean eta



Italiarrak Tolosan izango dira. HITZA

larunbatean. Lehena, *Il circo poetico* dohainik izango da, Euskal Herria plazan, bihar 19:00etan. Bigarrena, *Manoviva*, Topic-en larunbatean izango da, 18:30ean. Hurrek 4 euro ordaindu beharko dute eta helduek 7 euro.

### Zine foruma eta asteburuko emanaldiak

**ZINEA** › Leidor aretoan *La mitad de Oscar* pelikula ikusteko aukera egongo da gaur, 19:15ean eta 21:45ean. Zine forumaren barruko emanaldia denez, jatorrizko bertsioan jarriko dute pelikula. Igandean, *No tengas miedo* pelikula ikusteko aukera egongo da 19:30ean eta 22:00etan. Astelehenean, ikusleek egunean, pelikula hau 20:30ean jarriko dute. Astelehenean *Fake Orgasm* doan ikusteko aukera egongo da 20:30ean.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA EGUNKARIAN**  
uztailean **PRAKTIKAK**  
egiteko aukera

**TOLOSALDEKO eta LEITZALDEKO hitza** info

Bidali zure curriculumak  
**tolosaldean@hitza.info** helbidera

**Irudia** ◊ Tolosa**TALENTUDUNEN FINALA**

Ander Urdapilleta (Aurrera-Saiatz) eta Ioritz Egiguren (Txapagain) sailkatu dira infantil mailan, Gipuzkoako Talentudunen finala eskuz banaka jokatzeko. Urdapilletak, Jon Ander Peña (Txapagain) kanporatu zuen finalerdietan eta Egigurenek, berriz, Salegi (Zestoa). Horrela, datorren larunbatean Ander Urdapilletak eta Ioritz Egigurenek elkarren aurka jokatzeko dute finala Zestoa, 16:00etan. HITZA



Tolosa Kantarikoak Iruñean. HITZA

**Tolosa Kantariren entsegua hilaren 22an**

Azken larunbatean hiru urte beteko dituzte Tolosako kantariak; Iruñera ere bidaia egin dute

Tolosa Kantarikoek Patxi Urkola zena ekarri nahi dute gogora. Txangoa antolatzen hasi zirenean, oraindik, euren artean baitzegoen, lanean. Orain, *Errota Zaharra* kantatuz oroitzen dute.

**Erredakzioa** Tolosa

Ekaineko kantujirako entseguak ekainaren 22an, asteazkenean, izango dira Tolosako Musika Eskolan, 20:00etan. Hileko azken larunbat honetan, gainera, Tolosa Kantarik hiru urte beteko ditu.

**Tolosa Kantari Iruñean**

Ekainaren 4ean, Tolosatik joandako 100 lagun inguru Iruñean ibili ziren kantuan, bertako eskal kantuzaleek hileroko antolatzen duten kantujiran.

**Urrats «azpimarragarriak» eman dira Erosketa Berdearen inguruan**

Kontratazioetan ingurumen irizpideak txertatu dituzte, besteak beste, natur baliabideak aurrezteko

**Erredakzioa**

Ekainaren 5ean Nazioarteko Ingurumenaren Eguna izan zen eta, Tolosaldea Garatzen garapen agentziaren koordinaziopean, hainbat ekimen programatu dituzte herritarrei begira kontsumo arduratsua baten aldeko mezua zabaltzearen. Baina etxetik hasi behar dela diotenez, iaz Tolosaldeko udalerrietako arduradun politikoei Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen aldeko Konpromisoa sinatu zuten eta aurretik, Erosketa Berdearen inguruan emandako pausoak agertu nahi izan dituzte.

Eskualde mailako Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen aldeko Konpromisoaren bidez, eskualdeko udalerriek, Tolosaldea Garatzenek eta Tolomendik eros-

keta eta kontratazioetan ingurumen irizpideak txertatuko dituzte, natur baliabideak aurrezteko eta hondakinen sorrera murrizteko helburuarekin. 2010. urtea, abiapuntu urtea izanik, aurrerapauso txikiak baina azpimarragarriak direla esan dute.

**Balantzea**

Erosketa eta Kontratazio Berdearen inguruko Konpromiso Politikoa 19 udalerririk hartu zuten: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Orendain, Larraul, Tolosa, Villabona eta Zizurkilek; baita Tolosaldea Garatzen eta Tolomendi agentziek ere.

Ingurumen irizpideak txertatzen hasteko honako produktu eta zerbitzuak hautatu dira: papera eta argitalpenak, bulego makinak, bulego materiala, garbiketa produktu eta zerbitzuak, eta lorezaintza zerbitzuak.

Lehen ingurumen irizpidea kontsumoaren kontrola izan da udalerririk hauetan. Egoera ekono-

mikoa dela eta, «ez da dirua xahutzen eta beraz, asko begiratzen da zer erosten den eta zer ez» azaldu dute Tolosaldea Garatzenetik. «Hortik hasi behar gara, kontsumoa murriztea baita ingurumenaren alde har daitekeen neurri garrantzitsua», gehitu dute.

Papera izan da lehen produktu-zerbitzua ingurumen irizpideak txertatzen. Hauek izan dira irizpideak: Paperaren kontsumoa murriztea; 100% birziklatua den papera erabiltzea; barneko langileekin sentibilizazio ekintzak egitea eta hornitzaileei zigiluz horiek ezagutaraztea eta ingurumen irizpideak jarraitzen dituztenak hobestea.

Orokorrean, abiapuntua ez da zerotik hasten, hau da, dagoeneko herri askotan hartzen hasiak dira ingurumen irizpide minimo batzuk. Beraz, udalerririk zoriandu nahi izan dituzte ekimen honen koordinatzaileek, «aurretik egiten hasitako lanagatik». Hala ere, «produktu eta zerbitzu askotan» ingurumen irizpideak txertatzeko oraindik lan handia da goela egiteko azaldu dute.

**Denboraren Bankuak II. Truke Eguna antolatu du igandean**

Diruz ordaindu gabe produktuak etxera eramateko aukera egongo da, denbora txeeke bitartez

**Erredakzioa** Tolosa

Tolosako Emakumeen Denboraren Bankuak, Udalaren Berdintasun sailaren laguntzarekin, II. Truke Eguna antolatu du igan-

de honetan, hilaren 19an. Lehenengo bezala, Zerkausan izango da, 10:00etatik 18:00etara. Ekitaldi honetan nahi duen orok parte hartu ahalgo du. Udalak mahaia jarriko ditu Zerkausan, eta parte hartu nahi duten eskaintzeko dutenarekin joan ahalgo dira.

Azoka honen berezitasuna dirurik gabe nahi edo behar duzuna eskuratzean datza. Izan ere, parte-hartzaileek eskaintzeko dituzten produktuak edota zerbitzuak elkartrukatzeko dituzte euren artean. Horretarako, denbora txeeke erabiltzen dituzte. Txeeke ho-

rietan, jaki bat edo zerbitzu bat prestatzen edo ematen erabiltzeko denbora zehazten da.

Duela urte eta erdi sortu zuten Tolosako Emakumeen Denboraren Bankua zenbait emakume. Bi astean behin elkartzen dira eta beraien arteko elkartrukea egiten dute. Elkartruke hori nahiz euren ekimena zabaldu, ezaguturazi eta jende berria elkartzeko helburuz, iragan urteko abenduan antolatu zuten lehendabiziko Truke Eguna. Lehendabiziko esperientziak izan zuten harrera ona ikusita, orain bigarrena antolatzea erabaki dute.

**Iragarki laburrak****LANA**

■ **Ileapaintzailea.** Tolosako ileapaindegi batek, esperientziadun pertsona bat behar du lanaldi osoarako. Interesa dutenek, dei dezatela 625 70 50 59 telefono zenbakira.

■ **Zerbitzaria eta sukaldaria.**

Tolosako ostalaritza zentru batean, zerbitzari bat eta sukaldari bat behar dituzte udan lan egiteko. Ezinbestekoa da esperientzia izatea. Lanaldia osoa, goizez eta arratsaldeaz. Interesatuak, bidali curriculumak, [info@mujiika.net](mailto:info@mujiika.net) helbidera.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# Elizako organo berritua bisitatu dute Pello Errota eskolako ikasleek

100 urte beteko dituen organoa konpondu dute; Usarrabi kantujira taldeak ikasleak gonbidatu ditu elizara

**Enertiz Maiz** Asteasu

Joan den ostiralean, Pello Errota-ko ikasleek, urriak izaten diren esperientzia bizitzeko aukera izan zuten. Herriko elizako organoa bisitatu zuten. 1911ean eman zitzaion hasiera bertako organoaren bizitzari, eta ehun urte geroago, zaharberritu egin da. Konpondu egin dute: herrenak samurtu zaizkio, afinatu, harmonizatu...

Asteasuko Usarrabi kantujira taldea izan da ekimen honen bultzatzailea, eta bertako zuzendari Marga Jimenezek luzatu zion eskaintza Asteasuko eskolari. Nola ez, gusturajaso zuten organoaren mundura hurbiltzeko eskaintza.

Usurbilgo organista den Joan Luis Atxaga izan zuten erakusle. Lehenik eta behin organoaren iturriak azaldu zituen musika-tresna den partetik, eta jarraian



Atxaga usurbildarra ikasleei organoa jotzen aritu zen. HITZA

organoek soinu nola eta nondik sortzen dutenaren azalpen zoragarri bat egin zuen haur eta irakasleentzat.

Jarraian korura igo ziren, eta organoaren barrualdea bertatik bertara ikusteko aukera izan zuten; tutuak, hauspoa, tresneria elektrikoak...

Amaiera aldera Atxagak pieza batzuk jo zituen. Ziur aski urteak ziren batek baino gehiagok ez zuela organo baten haize hotsik

entzun: Bach, Txoriak txori (denek abestu zuten batera), banpiro edo beldur eta izu-ikara soinuak... Azken-azkenean ikasle zenbait organoaren tekla aurrean jarri eta beraiek musika eskolatari ikasten ari diren piezak jotzeko aukera izan zuten.

Datozen asteetan izango dira organoa berriztatzearen harira izango diren San Joan eguneko eta San Pedro eguneko kontzertu ederrak.

## **Irudia** Amasa-Villabona



## **AIZKARDIKOAK LESCUNEN**

Ohiturari jarraituz, Aizkardikoak mendi irteera egin zuten igandean. Kasu honetan, Lescun bailarara joan ziren eta bertan egin zuten ibilbidea. Larraille eta Lariste mendietara igo ziren. Eguraldi ona lagun izan zuten Aizkardikoek, eta inguruko paisaiek eskainituen duten ikuspegi zoragarri zozatu ahal izan zuten. Argazkian Larrailleko tontorrean ikus daitezke mendizaleak. Lasai ederrean eserita egon ziren, bertatik ikus daitezkeen paisaiez gozatzeko. HITZA

## **Dantza Taldearen ikuskizuna bihar kiroldegian**

Hirugarren urtez jarraian eskainiko dute dantza emanaldia kiroldegian; Anoeta eta Ibarako dantzariak dira

**E. Maiz** Anoeta

Bihar, hilak 17, Anoetako kiroldegian Anoetako Dantza Taldearen ikuskizuna izango da. Guztira 70 dantzari inguru ariko dira taula gainean, 22:30etik aurrera. 48 anotar eta 20 ibartarrek osatzen dute taldea.

Aurtengoa hirugarren emanaldia izango da, eta lehen aldiz parte hartuko dute 6,7 eta 8 urtetako ikasleek. Oso pozik eta gogotsu

daudela azaldu dute antolatzaileek. Hauez gain, Dantza Taldeko helduen eta ertainen taldeak ere parte hartuko dute. Gainera, Ibarako Alurr Dantza Taldeko dantzari batzuk ere etorriko dira emanaldira, izan ere bertan hainbat anoetarrek dantzatzeko baitute. Eta, nola ez, Anoetako Dantza taldeko irakasleek ere parte hartuko dute emanaldian.

Ikasturtearen erdialdetik ari dira partaideak emanaldi honetarako dantzak prestatzen. Ikuskizuna anitza izango da, eta dantza tradizionalak eta koreografiak nahastuta... ikusi ahal izango ditugu.

Anoetar guztiak bertaratzera eta emanaldiaz gozatzera animatu nahi dituzte, antolatzaileek.



Anoetako Dantza Taldearen emanaldia 22:30ean izango da HITZA

**www.euskalherriko**  
**PLAZA.com**

**PUNTU ESTRAK** (irailera arte)

**8** puntu

Erosteagatik lortzen diren puntuez gain...

**3** puntu

produktu hauek **puntu estrak** dituzte.

## **Azkenean ez du buruz buruko finala Oinatz Bengoetxeak jokatuko**

Bengoetxea VI.a eta Olaizolaren arteko partida igandean jokatuko behar zen; uztailearen 3an Xalax jokatuko du

**E. Maiz** Leizta

Azkenean Yves Salaberri *Xalax* jokatuko du buruz buruko txapelketako finala, eta ez haren ordez jarri zuten Oinatz Bengoetxeak. Enpresen Ligak partida atzeratzea erabaki zuen atzo arratsaldean. Xalaren ebakuntzaren ondoren, igande honetan zen jokatzen, Aimar Olaizola eta Oinatz Bengoetxearen artean. Astelehen arratsaldean Xalax Irunen eman zuen prentsurrekoaren ostean, atzo arratsaldean bildu zen pilotaria Aspe enpresarekin. Enpresen Ligak iritzi aldaketa izan du. Olaizolari eta Bengoetxea VI.ari eman diete abisua. Bilbon jokatuko da, uztailearen 3an.

Txindoki Bertikalaren bigarren proba jokatu da igandean. Larraitzko langatik abiatzen hasiko dira 10:00etan korrikalariak, banan-banan, erlojuaren aurka. 150 lasterkari inguruk parte hartuko dute. Horietatik bik, Iñaki Gorostidi abaltzisketarrak eta Jone Urkizu azpeitiarrak, errepikatu egingo dute.

**Iñaki Gorostidi** ◊  
Mendi lasterkaria

## «Gorputza probatzeko polita da iturriaren ondorengo malda»

**I. Garcia** Abaltzisketa

Iñaki Gorostidik (Abaltzisketa, 1972) berriro hartuko du parte Txindoki Bertikalean. Bera izango da Abaltzisketatik parte hartuko duen bakarra aurtengoan.

**Zer dela eta erabaki duzu berriro Txindoki Bertikalean parte hartzea?**

Ez dut normalean lehiaketetan parte hartzen. Hemen parte hartzen dut herrian antolatzen den ekimen bat delako. Gero ere aitzakia behar izaten da kirola egiteko. Eta horrelako lehiaketa batean parte hartzeak helburu bat jartzen dizu eta aitzaki horrekin kirol pixka bat egiten duzu.

**Zer asmo duzu igandean? Iazko marka hobetzea, adibidez?**

Egia esan ez. Gutxiago ibili naiz. Ordubetaren azpitik sartzen saiatuko naiz eta kitto. Aurreko urteko marka hausteko, aurten ez naiz hainbeste entrenatu. Hori elzteitsua bezala da, zenbat diru sartzen den... Eta egia esan aurten ez naiz asko ibili.

**Txindoki ezagutzen duzu. Abaltzisketako izateaz gain, orain ez asko apustu batean parte hartu zenuen.**

Txiki txikitatik, aitek lau urterekin eraman ninduenetik, askotan joan izan naiz. Hemen bertan daukagu eta, gainera, lana ere Abaltzisketan egiten dudanez, edozein garaitan estresa galtzeko ondo etortzen da. Txiki-txikitatik aitek erakutsi zigun mendira joaten, ez orain bezala, denak korrika. Baina bai, astebururo Txindoki



HITZA

kira edo Aralarra joateko joera daukagu.

**Probaren ibilbidean, iturriaren ondoren aldapa handia dago. Nolako da?**

Hori polita da. Beti gustatu izan zait aldapa hori. 500 metro igotzen dira eta kilometro bat eta 200 metro inguruko luzera du. %40ko malda du eta polita da. Gorputza

nola dagoen probatzeko ibilbide polita da.

**Ituriraino bide normaletik igotzen da.**

Larraitzetik iturrira igotzen den metro kopurua eta hortik tontorrera igotzen dena berdintsua da. Baina ituriraino egiten den ibilbidea luzeagoa da. Iturritik gora eskailerak igotzea bezala da.

**Herrikoa izanik, nola ikusten duzu horrelako probak antolatzea?**

Abaltzisketan ez da lehiaketarik antolatzen, eta beraz, herri txikia izanik, jende askori tokatzen zaio lana egitea. Horrelako lehiaketa bat antolatzeak lana eskatzen du, eta eskertzekoa da antolakuntza parte hartzen dutenek egiten duten lana.

**Badu zerbait Txindokik hainbeste jende erakartzeko. Zer sortzen duzu zuri mendi horrek?**

Gu bertakoak gara eta ez dakit zenbaterainoko objektiboak garen Txindoki deskribatzeko garaian. Baina zerbait berezia badu. Ez dakit zer den, itxura, edo Marien bizilekua izatea... Enblematikoa bada mendi altuena ez izan, bai da enblematikoa. Ikusi besterik ez dago igandetan mugitzen den jendea. Gainera ibilbidea polita da. Kilometro bat igotzen duzu, gogorra da, eta bere satisfakzioa ematen du goiza pasatzea etorri, Txindoki igo eta jaisteak. Zer esanik ez gailurretik dauden ikuspegiak.

**Mendi erakargarria, paraje ederra... Eguraldi ona egitea besterik ez zai-zue falta.**

Hori eskatu egin beharko dugu. Orain, aurretik, txarra egin dezala. Aurreko urtean lokatza zegoen. Lehen gogorra egiten bada, lokatzaekin are gehiago, batik bat azkeneko ibilbidea. Eguraldi lehorra egitea garrantzitsua da.

**Jone Urkizu** ◊ Mendi lasterkaria

## «Polita izan zen iazko proba; Txindoki beti gustatu izan zait»

**I. Garcia** Abaltzisketa

Jone Urkizuri (Azpeitia, 1979) iazko esperientzia gustatu zitzaion, eta berriro ariko da Txindokiko maldak igotzen igandean. Mendi lasterkaria da eta Txindokikoaz gain, beste kilometro bertikaleko probetan ere parte hartzen du.

**Nolako izan zen iazko esperientzia Txindoki Bertikalean?**

Polita izan zen. Txindoki beti gustatu izan zait. Gogorra, hori bai, azkeneko aldapa batez ere. Giro ona zegoen.

**Beste zein kilometro bertikaletan parte hartu izan duzu?**

Azpeitikoan, Anbotokoa eta Uharte-Arakilekoan. Txindoki-koarekin batera Euskal Herriko

kilometro bertikalen kopa osatzen dute.

**Zer ezberdintasun daude lau horien artean?**

Antzekoak dira. Denak oso esplosiboak dira, oso aldapa gogorrak dituztenak. Anbotokoa da aldapa luzeena duena eta Azpeitikoak motza duena, baina orokorrean zailtasuna antzekoa dute proba guztiek.

**Eta gehiena gustatzen zaizuna? Agian Azpeitikoak, gertuena duzueko?**

Bai, herrian bertan da, eta gainera jende ezaguna egoten da. Niretzako berezia da.

**Txindoki, iazko proba egin aurretik, ezagutuko zenuen, ezta?**

Bai, bai. Askotan joaten naiz

Txindokira. Oso polita da eta asko gustatzen zait.

**Zer asmo duzu igandean? Irabaztera joateko asmorik?**

Ez, irabazteko asmorik ez dut. Ni gustura ibiltzarekin konformatzen naiz. Iazko denbora hobetzen badut, hobe. Nire buruarekin gustura gelditzea da nire helburua.

**Emakumezkoen artean izaskun Zubizarretak parte hartuko du. Bera izan daiteke faboritua?**

Oso ondo ibiltzen da. Bera izan daiteke faborito nagusia.

**Gizezkoekin alderatuta, askoz gutxiago zarete emakumezkoetan.**

**Nola ikusten duzu hori?**

Bai, gutxiagok parte hartzen dugu, baina hala ere uste dut az-



HITZA

ken bi edo hiru urte hauetan gero eta emakume gehiago ari dela parte hartzen eta hori antzematen da. Orokorrean jende gehiagok parte hartzen du eta, noski, emakume gehiagok ere ematen dute izena. Ea gero eta emakume gehiago animatzen diren.

**Mendizaletasuna emakumezkoen**

**tan gizezkoetan bezain zabaldua dagoela esan daiteke.**

Emakume asko ikusten da mendian, baina agian lehiarako joera hori gutxiago daukagu.

**Eguraldiak ere eragina izango du igandeko proban.**

Espero dut bero handiegirik eta euririk ez egitea.

Eskualdeko lau dantzari Edu Murumendiarazen Aukeran dantza konpainian aritzen dira. 'Burnia' deiturapean, konpainiak bere azken lana estreinatu berri du.

# Dantzaren goren-gorenean

## Itzea Urkizu

**A**ukeran dantza konpainia 1997. urtean sortu zen Donostian. Ordu-ra arte euskal dantza tradizionalaren inguruan egindako irauli, eta euskal dantza tradizionala dantza garaikidea eta ballet klasikoarekin fusionatuz, dantza egiteko modu berri bati hasiera eman zion Edu Murumendiaraz, konpainiako zuzendariak.

Tolosaldean bertan, bada dantzarako grinarik, eta hamaika gazte aritzen dira oinak astintzen, eskualdeko taldeetan. Hain zuzen ere horrela hasi ziren Naikari eta Ioritz Galarraga amasarrak, Ione Iriarte billabonatarra eta Aritz Iglesias tolosarra, Aukeran dantza konpainiara iristeko lehen pausoak ematen.

Naikari Galarragag hamar urte inguru daramatza Aukeraren, eta konpainia Euskal Herriko dantzaren munduan egonkor mantentzera eraman duten lau ikuskizunetan parte hartu du: *Izena duen guztia omen da* (2004), *Bideak* (2006), *Gernika, mihise gaineko dantza* (2009) eta *Burnia* (2011). Ioritz Galarragag, lauzpabost urte daramatza konpainian, eta Ione Iriarte, berriz, iaz hasi zen Donostiako taldearekin entseguak egiten. Hiru dantzari hauek, Villabonako Oinkari dantza taldean ikasi zuten dantzan. Aritz Iglesias, berriz, pasa den otsailean hasi zen taldean, eta Tolosako Udaberri dantza taldeko partaidea da.



Naikari Galarraga, Ioritz Galarraga, Ione Iriarte eta Aritz Iglesias dantzariak Aukeraneke partaidea dira. HITZA

Aukeran taldeak astean hirulagu egiten ditu entseguak. Barran luzaketak egin ondoren, egun batzuetan dantza garaikideko eta klasikoko ariketak egiten dituzte; beste batzuetan, berriz, euskal dantza pausoak lantzen dituzte. Taldean, dantzarien mailaz gain, badira beste hainbat desberdintasun ohiko dantza taldeekiko. Esate baterako, dantzari gutxiago daude, eta hauek diziplina desberdinetatik etorritakoak dira. Aniztasuna da nagusi beraz.

Dantza ikuspuntu profesionalago batetik begiratzearena «esperimentzia polita eta interesgarria» dela diote, eta dantza garaikidea edo ballet klasikoa bezalako diziplinak ezagutzeko jakinmina beti izaten dela.

Hala ere, gaur egun euskal dantzarekin fusioa egitea indarrean dagoen arren, dantzariak ez dute aurretik landutako euskal dantza tradizionala alde batera uzteko asmorik.

Konpainiaren azken sorkuntza

lana, Bilboko burdinolak eta labe garaiak oinarri hartuta burutu du Edu Murumendiarazek, *Burnia* deituriko ikuskizunean. Pasa den astean estreinatu zuten, Bilboko Arriaga antzokian.

*Burniak*, industrializazioa, labe garaiak, honen ondorioz Bilbora etorritako etorkinak eta karlistada nahiz 36ko gerra gogora ekarri nahi izan ditu, konpainiaren aurreko ikuskizunean baino pauso eta koreografia «abstraktuagoak» horretarako baliatuz.

Fernando Velazquez sarituak konposatu du musika, eta Bilboko musika bandak interpretatu; hain zuzen ere bandako metaleko instrumentuen hotsak, burdinarekin lotura bat sortzen duela iradoki nahi izan dute. Era berean, Unai Elorriagaren gidioiak eta poemek dantzarien pausoei laguntzen diete emanaldian, *off-eko* ahots batekin.

*Burnia*, datorren udazkenean izango da berrito, Euskal Herriko aretoetan.

## Hilberriak →



**MARIAN  
MONFORT  
IJURCO**

MAITASUNEZ  
ZURE LAGUNAK

Nekane-Andres; Araceli-Patxi; Maite;  
Izaskun-Txitxa; Mertxe-Patxi;  
Escolastica-Juan Antonio eta Consuelo-Angel

Ibarran, 2011ko ekainaren 16a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK · 18:30ak arte hartzen ditugu · tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

**HILETAREN BALIOA**  
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakartzak bere neuniko fileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazozina da galdu duzuna,  
baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK  
902 402 900  
www.funerariavascongada.com

**Gutuna****Bartolaren nahia, herritarron jaia!**

Beste urte batez ere, udaberri parte honetan, zuengana zuzentzen gara orain artean Bartola festa batzordea osatu dugun kideok. Aurten ordea egoe-ra guztiz ezberdina bizi du ibarrak. Azken zortzi urte hauetan ez bezala, berriz ere, ibartarrok, guztiok aukeratu ahal izan dugun udaletxe bat daukagu, benetan merezi eta nahi genuena. Aukera guztiak bertan izan direnean, argi ikusi da zein zen ibartarron nahia.

Ez dira zortzi urte erraz izan. Bartola festa batzordea osatzen dugunok, oso harro gaude gure herriaz. Lana eginenez, borrokatzuz eta festa giro ezin hobea jarritz egin diogu aurre udal inposatzaileari. Asko izan gara lan egin dugunak eta asko, lan guzti hori babestu dugunak. Eskerrak ahaztu aurretik, azken hiru urte hauetan Bartolaren festan parte hartu duzuen ibartar guztiok, zuek ere, hainbeste desio izan dugun errealitate honen ardura baduzue eta.

Udal honek, badu guretzat ezinbestekoa den beste ezauzgarri bat: herritarron parte hartzean oinarritua izatea. Hori da hainbeste urtetan eskatu eta borrokatu duguna, horixe gure herriak merezi zuen tratamendua. Jadanik ez gara bigarren mailako ibartarrak, orain gure

esku ere badago udalaren norabidea.

Horregatik, Bartola festa batzordea osatu dugunok, argi daukagu aurten non dagoen gure lekua: Udalak deituko duen Festa Batzordean. Bi printzipio izan ditu beti Bartolak: Udal inposatzaileari bizkarra ematea eta herritarron parte hartzea bermatzea. Orain uste dugu bi printzipio hauek betezen dituela udalak eta horregatik, gure lan borondatea eta baita orain arte gure festa alternatiboen ezaugarri izan diren ekintzak ere bertatik eta guztion artean antolatzeko konpromisoa hartzen dugu.

Guk, oso argi daukagu, aurtengo Ibarako festak herritarron artean antolatutako izango dira eta gu ere bertan izango gara, lagunduz, beste herritarrekin batera antolatuz, bat gehiago izanik. Eta horregatik, dei berezi bat egin nahi dizuegu ibartar guztiok gaur, hilak 16, 19:30ean udaletxean burutuko den Festa Batzordean parte hartzeko.

Antolatu ditzagun, guztionak eta guztiontzat izango diren Ibarako Festak. Ibarrek merezi duelako, eta irabazi dugulako.

Festetan ikusiko dugu elkar!  
■ **Bartola Festa Batzorde alternatiboa.**

**Irudia ▾ Ibarra****ALURREKOAK IZASKUNEN**

Izaskun haur dantzaz bete zen iragan astelehenean. Alurrek urte asko daramatza emanaldi hau eskaintzen, eta gero eta haur dantzari eta ikus-entzule gehiago biltzen dira emanaldira. Guztira, 130 umek dantzatu zuten, ordu eta laurdeneko saioan. Dantza tradizionalak eta koreografiak egin zituzten: *Agintariena*, *Uztai Txiki*, *Aulki Dantza*, *Banako*... Mutilez osaturiko talde bat ere aritu zen, eta saio polita eskaini zuten, *Desafio*, *Ezpata* eta beste hainbat dantza eginenez. Emanaldia amaitu ondoren, haurrek askaria jaso zuten. HITZA

**Udal igerilekua zabaldu dute**

Oraingoz, astean zehar 15:00etatik 20:00etara egongo da zabalik eta asteburuetan 11:00etatik 20:00etara

**Maier Ugartemendia** Leitza

Uda gerturatzeko ari da, eta hondartzara eta igerilekuetara joateko garaia heldu da. Atzoko eguraldia gorabeheratsua izan zen arren, Leitzako igerilekua atzo ireki zuten. Hilaren 23ra arte, astean zehar zabalik egongo da arratsaldetan, 15:00etatik 20:00etara, eta asteburuetan 11:00etatik 20:00etara. Hilaren 23tik aurrera, iraila arte, 11:00etatik 20:00etara egongo da zabalik igerilekua. Herriko festetan, hau da Santiburtzioetan, 11:00etatik 18:00etara egongo da zabalik.

Igerilekura joan nahi dutenek nahi izanez gero, eguneroko sarrerak eros ditzakete; baina, bestela, 10 eguneko edo 2011. urterako abonua ere atera ditzakete. 10

eguneko abonua igerilekuan bertan eros daitezke, eta 2011ko abonua eskuratu nahi dituztenek Leitzako edozein banketxetara joan beharko dute, eta bertan, adina eta bazkide diren edo ez zehaztuta, abonua erosi. Bertan jasotako erreziboa eta argazki bat kiroldegira eraman beharko dituzte, eta han, txartel bat egingo

diote. Sarreraren prezioak desberdinak izango dira, egunen arabera eta adinaren arabera. Gainera Leitzan erroldatuta daudenen eta bazkide diren sarrerak merkeago izango dituzte.

Zalantzen bat izanez gero kiroldegian bertan lor daiteke, edo bestela 948 510 719 telefonora deitu daiteke.

**↓ 2011ko abonua****ERROLDATUAK**

■ **Haurrak (5 urtetatik 13ra).**

Bazkideak 18,80 euro eta besteek 23,50.

■ **Gazteak (14 urtetatik 17ra).**

Bazkideak 29,30 euro eta besteek 35,30.

■ **Helduak (18 urtetatik 64ra).**

Bazkideak 55,30 euro eta besteek 63,50.

■ **65 urtetatik gorakoek.** Bazkideak 29,30 euro eta besteek 35,30.

■ **Familiarra.** Bazkideak 117,30 euro eta besteek 129,30.

**ERROLDATU GABEAK**

■ **Haurrak (5 urtetatik 13ra).**

Bazkideak 20,60 euro eta besteek 25,80.

■ **Gazteak (14 urtetatik 17ra).**

Bazkideak 32,20 euro eta besteek 38,80.

■ **Helduak (18 urtetatik 64ra).**

Bazkideak 60,80 euro eta besteek 69,80.

■ **65 urtetatik gorakoek.** Bazkideak 32,20 euro eta besteek 38,80.

■ **Familiarra.** Bazkideak 129 euro eta besteek 142,20.

**Aresoko Guraso Elkartearen 25. urteurrena ospatuko dute**

Larunbaterako egun guztiko jaia prestatu dute Guraso Elkarteak kide direnek eta izan direnek

**M. Ugartemendia** Areso

Aresoko Guraso Elkarteak 25 urte betetzen ditu aurten, eta hori dela eta gaur egun Guraso Elkarteak osatzen dutenek ospakizun berezi bat prestatu dute larunbat honetarako.

Elkarteko kideen arabera «momentu errazak eta zailak» pasa dituzte, eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte eta beste asko antolatzeko dituzte oraindik. Guraso Elkarteak nahi duen oro ekitaldi



13:00etan ospakizun bat egingo dute eskolako guraso eta ikasleekin. HITZA

di hauetan parte hartzeraz gombidatu dituzte; batez ere, 13:00etan izango den ekitaldian parte hartzeraz gombidatzen dituzte herritar guztiak, bertan 25 urte hauetan guraso edo/eta ikasle izan direnek ospakizun bat egingo baitute. Ekitaldi guztiak plazan izango direla ere gehitu dute.

**↓ Egitaraua****EKAINAK 18, LARUNBATA**

■ **11:00etan.** Tailerrak.

■ **13:00etan.** Ospakizuna.

■ **14:00etan.** Bazkaria.

■ **16:30ean.** Zirko tailerra.

**→ Laburrak****Langostino Motor Festan izena emateko aukera**

**IBARRA** ▸ Langostino Moto Kultur Elkarteak uztailaren 2 eta 3an IX. Langostino Moto Festa antolatu du Ibarren. Asteburu guztirako hainbat ekitaldi antolatu dituzte, eta ekitaldi hauetan parte hartu nahi duenak izena eman beharko du. 250 pertsonak eman dezakete izena [langostinomotofesta@gmail.com](mailto:langostinomotofesta@gmail.com) helbidean. Informazio gehiago [www.langostinomotofesta.com](http://www.langostinomotofesta.com) helbidean.

**San Juan bezperako festa antolatzen ari dira**

**LEABURU-TXARAMA** ▸ Txaramako Jai Batzordeak 2011ko San Juan bezperarako festa antolatu du. Egun horretan afaria egingo dute eta ondoren, San Juan sua piztuko dute. Afari horretarako izena emateko 675 705 897 telefono zenbakira deitu behar da. Egun horretan egingo den sua presatatzeko, berriz, hilaren 21an elkartzeko dira, 16:00etan, beheko plazan.

**Festa Batzordearen bilera izango da, gaur**

**IBARRA** ▸ Ibarako Udalak, San Bartolome jaiaren antolatetari ekin asmoz, gaur, hilak 16, 19:30ean Udal Batzar Aretoan, Festa Batzordearen bilera deialdia egin du. Udalak ibartar guztiak bertan parte hartzeraz gombidatu ditu.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** www.tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 118. ibarra@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak  
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Baliarrain,  
Belauntza, Berastegi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Agenda

### DEIALDIK

- **Villabona.** Aniztasun Astearen barruan gaur, altxorren bila jokoa 17:00etatik aurrera. Errebote plazatik aterako dira eta parte-hartzaileek herrian zehar zabaldutako pista bilatu beharko dituzte. Gazte zein gurasoei zuzendutako ekitaldia da.
- **Tolosa.** Galtzaundi euskara taldeak igandean Laudion ospatuko duten Araba Euskaraz jaira joateko autobusak antolatu ditu. Hauek 09:00etan aterako dira zezen plazatik. Galtzaundiko bazkideek 10 euro ordaindu beharko dute, eta gainotzekoek 12 euro. Izena Galtzaundiren egoitzan eman daiteke, edo 943 65 50 04 telefono zenbakira deituta.
- **Tolosa.** Alpino Uzturre mendi taldeak irteera antolatu du iganderako. Burgos ingurura joango dira oraingoan. Izena emateko deitu 943 65 27 89 telefono zenbakira, edo idatzi [alpinouzturre@hotmail.com](mailto:alpinouzturre@hotmail.com) helbidera.
- **Tolosa.** III. Iturriza Mus San Joan Sarian parte hartzeko aukera zabalik dago. Izen-ematea etzi amaituko da, ekainak 18, eta horretarako Iturriza Jubilatutako Elkartera joan behar da 10:00etatik 12:00etara.
- **Villabona.** Katea Etxea gaztelekuan serigrafia tailerra egingo dute ekainaren 27, 28, 30 eta uztailaren 1ean. Izena ekainak 24 bitarte eman daiteke. Gaztelekuan bertan. 12 eta 17 urte artekoek 25 euro ordaindu beharko dute, eta eskolak 11:30etik 14:00etara izango dira. 18 eta 29 urte bitartekoak, aldiz, 45 euro ordaindu behar dute, eta eskolak 19:30etik 22:00etara izango dira.
- **Tolosa.** XIII. Street Basket

Txapelketa izango da larunbatean. Izena emateko [www.takesb.com](http://www.takesb.com) helbidera idatzi behar da.

- **Ibarra.** Asteburu honetako Gazte Festetako larunbatean egingo duten gazte bazkarirako txartelak eskuratu daitezke ohiko lekuetan. Bazkaria Xeplan 14:00etan izango da, eta langabetuek 12 euro ordaindu beharko dute, eta langileek 15 euro.
- **Ibarra.** San Bartolome jaietarako bozeto lehiaketa ireki dute jada. Lehiaketan Ibarra bizi edo ikasten duten haurrek parte hartu dezakete, eta lanak uztailaren 8a arte aurkeztu daitezke Kultur Etxean.

### ERAKUSKETAK

- **Alegia.** Garai bateko Alegiako argazkiak Jubilatuen taberna hilabete bukaera arte.
- **Larraul.** Pisuak eta balantzak biltzen dituen erakusketak Ekomuseoan iraila bitarte.

### MUSIKA

- **Tolosa.** Bonberenean gaur, Aina eta No More Lies taldeen kontzertuak 22:00etatik aurrera.

## Farmaziak

### GAUR

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. Telefonoa: 943 67 098 15.
- **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 25. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

## Irudia Leitza



## 3,9 MILIOIKO INBERTSIOA SARRIOPAPELEN

Lecta taldeak Leitza duen lantegian, Sarriopapelen, 3,9 milioi euroko inbertsioa egingo duela iragarri du. Dirua papera metalizatzen duen makina bat erosteko izango da, eta taldeko arduradunek azaldu dutenez, makina berri hau 2011ko

abenduan egongo da martxan. Inbertsioa dela eta, Nafarroako Gobernuako jarduneko lehendakaria, Migel Sanz, eta Jose Maria Roig jarduneko Enpresa eta Lan kontseilaria izan dira Sarriopapel enpresan. HITZA

## Agurak

### AGURRAK

943-65 56 95 [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

●●●●● agurak

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO** hitza info  
bertako egunkaria  
egin zaitez harpidedun!

**902-82 02 01**

(Asteegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

[www.tolosaldea.hitza.info](http://www.tolosaldea.hitza.info)  
[www.leitzaldea.hitza.info](http://www.leitzaldea.hitza.info)

eraman/bidali izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 behea, atzea - 20400 Tolosa

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

•Izen-abizenak:	•NA:
•Lanbidea:	•Jaioteguna:
•Helbidea:	•Herria:
•P.K.:	•Tel.:
•Posta elektronikoa:	
•Kontu zenbakia:	<input type="text"/>